

AINGERU IRIGARAY ETA AURITZE

Etxarren-Lohigorri
Euskaltzaindiko urgazlea

Aitaren sort herria zelakotz, ardura bazoan Aingeru Irigaray Auritzerat, Orriako ondoan dagon herri xarmegarritat. Euskaltzale frango oroit dira nola 1972 urtean egin zen, Auritzen, Fermin Irigaray idazle bikainari omenaldi bat ederra. «Martin Zurgina» etxean harri lauza bat agertarazi zuten, ongi zizelkatua. Hari behatuz eta marrazkituak dauden idazle eta mediku tresneri, aita eta semea gogoan erabil ditzazke ber denboran, aitaren urratseri jarraiki baitzen Aingeru erne ernea, mediku eta idazle lanetan.

Iduri luke, alabainan, medikuntzak eta linguistika eremuetan ibiltzeak ber jitea galdegiten dutela, gorputzaren anatomia eta mintzaira batena elgar iduriak balire bezala. Ez da debaldetan errana «mintzaira bizia»... Eta Aingeruk laket zuen bilatzea zer bizi ereman zuten euskal hitz zaharrek, zoin mugetarik eta zointaraino ibiltzen ziren, noizetik eta noiz artio gizonek aho mihitan erabili zituzten. Asko liburu eta artikulua idatzi ditu gai hortaz, denak xeheki emanak eta xinpleki, jakintsun bezain umila baitzen.

Odolean zuelakotz euskararen aldeko zaletasun hori, gogotik agertarazi zuen «Prosistas navarros» liburua, Luzaideko Manezaundiren kapitulu zonbeitekin eta Auritzeko Fermin Irigarayek idatzi bertze batzuekin. Bere aitari egiten zion horrela bihotzetikako omenaldia. Ez da harritzeko Aingeruk beti maitatu badu baxenafar euskalkia, bi idazle horiek ibiliaren eite haundikoa.

Auritzerat heldu zen aldi guziz, euskaraz baizik ez zuen mintzatu nahi adixkideekin. Eta bazakien nun atea jo... Haren bisita, oren goxo baten mentura... Beti ongi emana, soa sarkorra, jaun bat zen Aingeru, bainan zoin xehe eta maitagarria!... Norbaitek erran zautan egun batez: «Nik segurik ez dut udako ikastaldietarat joaitearen beharrik. Aingerurekin badut zer ikas...»

Ardura ikusi dugu Auritzeko oihanetan gaindi, lagun batekin edo bere anai Luis Mari-rekin beti kurri eta beti euskal gaietaz mintzo. Ez zuten behar bada ainitz onjo biltzen, bainan lehengo Plinio latin idazlearen gisa, kurridda bururatu eta, bazitaken ardura zerbait idazlanen gaia.

Ikustekoa zen, urratsa zalu, burua xut, gogotik ibilki luzaz, Auritzeko aireaz egarri bezala... Donostirat gibelerat bere «4 L» gorrastan joan aintzin,

nahi zuen Iruñeko kasetan baten irarkolan gelditu, euskal artikulueri azken begi kolpe bat eman beharrez inprimatu baino lehen. Bi astetarik «Nafar hizkuntzako arria» behar zuen alabainan apailatu adixkide zonbaiten laguntzarekin.

1978 urtean Orriako guduka famatua omendatu zen Auritzeko pago ohian batzuen erdian. Milaka eta milaka etorri ziren euskaldunak bi aldetarik, Casenaven «Ibañeta» pastoralaren karietarat. Plazerrekin ikusi zuen Aingeruk hainbeste euskaldunetz Auritze imokatua, bai eta ere Orriako eliza.

Baxenafarre maite zuen, ahaideak ere baitzituen hor gaindi. Etienne Salaberri-ren hil berriak hunkitu zuen gain gaineratik eta Heletan ibili zen ehortzetan, azken egun bat agur beharrez holako euskal idazle eta adixkideari.

Eta horra nun besteen sendatzeaz arduratu ondoan bizi guzian, berari lotu zaion eritasunaren aztaparra. Iruñeko «Nafar arria» itzali da zorigaitzez, Nafarro guzian hedatzen zuen euskal ahamena erortzera utziz... Eta egun batez euskal lan batean ari nintzelarik, bat batean begiak altxaturik ikusi nuen «Herria» kasetan Aingeru-ren hil berria. Bihotzeko zimiko horrek ez ote zuena erran nahi Aingeruk hain ongi ereman sailari behar dugula denek jarraiki?

Egun, Jondoni Joane, Auritzeko patron saildua... Gaztek jauzi egin dute karrikan piztu suen gaineratik. Su bat itzali orduko, urrunago bertze bat pitz... Aingeruk ere ez dauku bertzerik galdegiten eta bere familia hor dago lekuko, semeari eman baitio berak hain bizirik atxiki duen euskal sua, aitaren ganik ukana.

Auritze, 84/VI/24.